

Bizkaiko enpresen % 54,3k jarduera berritzaileak gauzatu ditu azken lau urteetan

% 58,7k berritzeko erabakia arrakastatsua izan dela uste du eta % 64,9k enplegua sortu du ezarritako berrikuntzei esker

Bilbon, 2017ko ekainaren 24an. Bizkaiko enpresen erdiak baino gehiagok aitortu du 2013-2016 aldian **jarduera berritzailearen** bat egin duela modu jarraituan edo aldizka. 2016an % 53 izan zen eta 2017an % **54,3**. Hala islatu du Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Merkataritza Ganberak Berrikuntza Behatokiaren (Barrixe) bitartez Bizkaiko enpresen jarduera berritzailea aztertzeko egin duten **Norabidea 2017** azterketak.

Modu jarraituan berritzen ari diren enpresak kontuan hartzen baditugu,% 31,2k iraunkor mantendu ditu berrikuntza jarduerak azken lau urteetan, eta horrek esan nahi du mota horretako konpainiak ere % 30,7 hazi direla aurreko urtearekin konparatuz.

Hamarretik hiru enpresek berrikuntza maila altua edo oso altua dute

Gainera, Berrikuntzaren Intentsitate Indizeak inkesta hori egitea ahalbidetzen du eta jarduera berritzailearen sistematizazio-maila neurtzen du, eta horren arabera, enpresen % 27,3k berrikuntza maila altua edo oso altua du.

Norabidea 2017 azterketaren beste ondorioetako bat enpresen % **58,7k berritzeko erabakia** arrakastatsutzat jotzen duela da; hala, berrikuntzari esker nagusiki kalitatea hobetzea lortu dute (% 82,3), fakturazioa gehitu da (% 79,2) eta produktu eta zerbitzuak gehitu dituzte (% 77,2). Era berean, % 64,9k enplegua sortu du ezarritako berrikuntzei esker, eta irabazi hori ehuneko 4,2 puntu hazi da 2016 urtearekin alderatuz.

Eraberritzea, motor dinamizatzailea

Bestalde, enpresa berritzaileen **lan-esparruen** kopuruak gora egin du berriz ere, eta 2,8 esparrutan kokatu da (2,2 izan ziren 2015ean); hala, produktu edo zerbitzu berritzaileetan egindako berrikuntzak nabarmentzen dira, bai enpresentzat beraientzat egindakoak, baita merkatuentzat egindakoak ere. Produktu edo zerbitzuak eraberritzeko bultzada hori marketin eta komertzializazioan egindako berrikuntzaren gorakadaren atzean dago, eta berriz ere egiaztatu da hobekuntzak ezartzean negozioaren eremu ezberdinetan ekimenak garatu daitezkeela.

Lankidetzaren garrantzia

Azterketaren emaitzen arabera, **lankidetz**a ezinbesteko elementua da berritzeko orduan. Enpresa guztietatik % 40k baieztatu du beste enpresa batzuekin lan egin duela, eta hala, merkatuaren exigentziei geroz eta protagonismo gehiago eman die eta gehitu egin da denboran zehar lankidetz

mantendu dutenen enpresa kopurua (% 38,8 izan ziren 2016an eta % 36,6 aldiz 2015ean).

Azpimarratu behar da lankidetzan jardun duten enpresen % 50,7k aurreikusitako helburuak bete dituela eta % 8,2k gainditu egin dituela.

% 39,1k adierazi du testuinguru ekonomikoak zuzenean eragiten duela **berrikuntza ekintzetan**, baina hala ere, Bizkaiko enpresa berritzaileak baikorrak dira eta uste dute egungo erritmoa mantenduko dutela, eta hamar enpresatik laurek uste du alor horretan geroz eta esfortzu gehiago egingo dituztela.

Egotzitako kostuarekin, «geldirik» dagoen merkatuarekin eta kultura berritzaile faltarekin bukatzeko lan egin behar da

Badaude baita ere azken urtean **jarduera berritzaile batik ere** gauzatu ez duten enpresak (zehazki enpresen % 45,7), eta horrek esan nahi du 2015 urtearekin alderatuta ehuneko 1,3 puntuko beherakada egon dela, urte horretako kopurua % 47 izan baitzen.

Enpresa horietako askok uste du jarduera berritzaileak gauzatzea ez dela beharrezkoa, txikiak direlako, sektore tradizional batekoak direlako, jarduera ondo doalako edo bezeroak eskatzen duenera jada egokitzen direlako. Hala ere, gauzak aldatzen daude berrikuntza ekimenak gauzatzeko beharrari eta premiari dagokionez, baita horiek enpresa arrakastarekin duten harremanari dagokionez ere. Pixkanaka-pixkanaka, geroz eta gutxiago dira beharrezkotzat jotzen ez duten eta edonola ere berrikuntza atzeratu daitekeen elementutzat jotzen duten enpresak, baina oraindik ere gehiengoa izaten jarraitzen dute.

Azterketari esker, berrikuntzak ezartzeko joeraren arabera **banakatu** daitezke enpresak, eta hala ondorioztatu da % 21,7k berrikuntzan lan egin nahi duela.

Azken finean, beharrezkoa da kultura berritzailean lan egiten jarraitzea, ekimen horiek enpresei ematen dizkien onuren berri ematen jarraitzea eta behar duten enpresei laguntza eta aholkularitza hurbilekoa eskaintzen jarraitzea.

‘Norabidea – Bizkaiko enpresetan berrikuntzak duen garrantziari buruzko inkesta 2017’ txostena hemen kontsultatu daiteke: www.barrixe.com y www.camarabilbao.com.